



Bidasoa - Txingudi

EUOPAR BATASUNEAN, KIROL FEDERAZIOEK ANTOLATUTAKO LEHIAKETA AMATEURRETAN HERRITAR NAZIONALEK PARTE HARTZEARI BURUZKO TXOSTEN JURIDIKOAREN AZTERKETA

AURKIBIDEA

1. GERTATUTAKOAREN AURREKARIAK	2
2. EBFlren EBAZPEN JUDIZIALEN AZTERKETA	5
3. MUGAKO ETA MUGAZ GAINDIKO ERREALITATEA	7
4. ONDORIOAK	8

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak, Kirol Batzordearen bitartez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, zerbitzu juridikoa eskaintzen die mugaz gaindiko arazoak dituzten kirol klubei.

Kirolaren arloko mugaz gaindiko arazoak Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Kirolaren Eurosarearen bidez hasi ziren lantzen, eta Partzuergoak urtero eskaintzen du aholkularitza juridikoa kirol arloan, hainbat kirol federazioen araudi asko ez daudelako eguneratuak eta ez datozelako bat Europako errealitatearekin eta politikarekin, Europako herritarren eskubideen arloko legeriari dagokionez.

Horri buruzko hainbat txosten egin dira klubei aholku emanez, besteak beste, Hondarribia Saskibaloia Elkarteari, hendaiar jokalaria bat baitu, edo Les Eglantins futbol taldeari, Irungo Stadium Galen Frantziako Kopako kanporaketa bat jokatu ahal izateko.

Horri buruzko azken txostena Real Union Klub SAdek eskatu zuen, hendaiarrei federazio fitxak izapidetzean sortutako arazoak zirela eta.

1.- GERTATUTAKOAREN AURREKARIAK



Bidasoa - Txingudi

Federazioen kirol amateur edo afizionatuaren araudi askok dituzten klausulek eta baldintzek, edo mugak jartzen dituzte, oztopo administratibo eta burokratiko handiak ezarrita, edo zuzenean eragotzi egiten dute beste estatu kide batzuetako nazionalak kirol afizionatuko txapelketa nazionaletan parte hartzea.

Hala, Batzordeak nabarmendu ahal izan du barne merkatua egiteak bermatzen duela pertsonen zirkulazio askatasuna erabat garatzea, nazionalitatea dela-eta inor ez diskriminatzearekin lotuta, kirol jarduera orori dagokionez, dela profesionala, dela afizionatua. Eta hori, beraz, Europako Parlamentuak onartzen duen bezala, *“Kiolak Batasunaren helburu estrategikoak lortzen laguntzen du, oinarrizko balio pedagogikoak eta kulturalak nabarmentzen ditu eta integrazio bektorea da, herritar guztiei zuzentzen baitaie, edozein dela ere haien sexua, jatorri etnikoa, erlijioa, adina, nazionalitatea, gizarte egoera edo sexu joera”*.

Arauen hierarkiaren printzipioa.

- 1) Erkidegoko sistema juridikoak, baita Espainiakoak ere, berea egiten dute Arauen Hierarkiaren Printzipioa, zeinak Nazioarteko Itunei lehentasuna ematen baitie lege nazionalen eta araudien gainean, maila apalagoko arau gisa ordenamendu juridikoan, eta egindako eta ofizialki argitaratutako itunak estatu bakoitzaren barne ordenamendu juridikoaren zati izatera igarotzen dira.
- 2) Beraz, legeek eta araudiek ezin dute Nazioarteko Itun batean jasotako xedapenen aurka egin, eta legegile nazionalaren edo nazionalen lana da arau nazionalak Itunekiko koherentzia izan dezaten bermatzea.



Bidasoa - Txingudi

Federazio araudien izaera juridikoa.

- 3) Federazioen izaera juridikoa edozein dela ere, haietatik etorritako arauak ezin dute halako *autismo juridiko* bat ezarri, ez erkidegoko esparru juridikotik ez barneko antolamendu juridikotik ihes egin, ez eta kirol zuzenbidearen salbuespen juridikorik sortu ere. Federazio Araudiak, araudiak diren aldetik, nazioarteko itunen, Europar Batasunaren ondarea osatzen duten itunen eta arauen (Europar Batasunaren Ituna, TFUE, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, eta Europar Batasuneko Auzitegiek emandako ebazpenak), eta lege eta printzipio orokorren mende daude, eta, beraz, maila apalagoko arauak dira aipatutakoak eta beste haien xedapenak errespetatu behar dituzte.
- 4) Horrenbestez, bai Federazio Araudiek bai Federazio Lizentziek, biak ere Kirol Federazioetatik datozenak, ordenamendu juridikoa, arauen hierarkiaren printzipioa eta, bereziki, Europar Batasuneko aginduak bete behar dituzte, hala nola nazionalitatea dela-eta diskriminaziorik ezaren printzipioa eta askatasunez zirkulatzeko eta ezartzeko eskubidea.

Erkidegoko zuzenbidearen xedapenak.

Kontuan harturik Europar Batasuneko itun horien xedapenak, Espainiako ordenamendu juridikoak bere gain hartutako barne zuzenbidea diren aldetik, zuzenean aplikatu daitezkeela, eta partikularrek zuzenean eska ditzaketela eta nahitaez bete beharrekoak direla, bereziki interesgarriak dira goragoko mailako arau horien artikuluko batzuk:

1. **Europako Erkidegoa Eratzeko Ituna.**
2. **Europar Batasunaren Funtzionamendu Ituna (EBFI).**
3. **Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna.**
4. **Europar Batasuneko antolamendu juridikoaren xedapenak kirolari aplikatzea.**

“Europar Batasuneko zuzenbidearen beste printzipio garrantzitsu batzuen irismenaren barruan ere badago kirola, hala nola nazionalitatean oinarritutako diskriminazioa debekatzea, Batasuneko herritartasuna eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna enplegu gaietan”, eta “kirolaren berezitasunak aitortua izaten jarraituko du, baina ez da



Bidasoa - Txingudi

interpretatu behar erkidegoko zuzenbidea aplikatzearen salbuespen orokorra justifikatzeko moduan”.

Europako Parlamentuak, Europako Parlamentuaren kirolaren dimentsio europarrari buruzko 2012ko otsailaren 2ko Ebazpenean, Lisboako Itunak indarrean dagoen Europar Batasunaren Itunaren (EBI) eta Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren (EBFI) testuan egindako aldaketen ondoren, zeinak berariaz sartu baitzuen Erkidegoaren altxorrean kirolerako itunaren artikuluetan, aitortzen du kirola EBren eskumena dela Lisboako Itunaren arabera, eta Europar Batasuneko kirol politika garatu egin behar dela kirol profesionalaren eta afizionatuaren xedeei eta helburuei heltzeko eta horiek babesteko, bereziki Batasuneko herritarren nazionalitatea edozein dela ere, eta ekitatea eta irekiera sustatu behar direla lehiaketetan.

Horrela dago jasota ebazpen horren testuan, eta honako hau adierazten du interesatzen zaizkigun ondorioetarako eta bereziki letra lodiz:

“A. Kontuan izanik **kirolak Batasunaren helburu estrategikoak lortzen laguntzen duela**, oinarrizko balio pedagogikoak eta kulturalak nabarmentzen dituela eta integrazio bektorea dela, herritar guztiei zuzentzen zaien neurrian, **edozein dela ere haien** sexua, jatorri etnikoa, erlijioa, adina, **nazionalitatea**, gizarte egoera edo sexu orientazioa.

- I. Kontuan harturik **EBko kirol politika garatu egin behar dela kirol profesional zein afizionatuaren xedeak eta helburuak betetzeko”.**
- II. **Lisboako Tratatuaren arabera, kirola EBren eskumena da, kirol lehiaketetan zuzentasuna eta irekiera sustatzeko.**



Bidasoa - Txingudi

2.- EBJAren EBAZPEN JUDIZIALEN AZTERKETA

Bosman gaia (C-340/90 gaia).

Deliège gaia (C-51/96 eta C-191/97 gai metatuak).

Lehtonen eta Boukhalfa gaiak.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko hirugarren salaren epaia, 2019ko ekainaren 13koa (C-22/18 gaia).

- *Jurisprudentzia errepikatuaren arabera, **Batasuneko herritarraren estatutuaren bokazioa da Estatu kideetako herritarren funtsezko estatutu bihurtzea, eta egoera berean dauden herritar horiek tratu juridiko bera izatea, nazionalitatea edozein dela ere**, eta horri buruz berariaz aurreikusitako salbuespenen kalterik gabe (2001eko irailaren 20ko epaia, Grzelczyk, C-184/99, EU: C: 2001: 458, 31. atala).*
- *Justizia Auzitegiak adierazi duen bezala, **bere zirkulazio askatasuna erabili duen Batasuneko herritar baten egoera EBFiren 18. artikulua erabiltzeko eremuaren barruan dago. Artikulu horrek nazionalitatea dela-eta diskriminaziorik ezaren printzipioa ezartzen du** (2018ko azaroaren 13ko epaia, Raugevicius, C-247/17, EU: C: 2018: 898.27 atala).*
- ***Artikulu hori, Biffi jaunarekin gertatzen den bezala, nazionalitatea duena ez beste estatu kide batean bizi den Batasuneko herritar bati aplikatu dakioke, estatu horretan parte hartu nahi badu kirol lehiaketetan afizionatu gisa.***
- ***Estatu horretan eskaintzen diren jolas jardueretan parte hartzea zirkulazio askatasunaren ondorioa da.***
- ***EBFiren 21. artikulua, 1. atala, eta EBFiren 165. artikulua batera interpretatuz gero, ondorioztatzen da kirol afizionatu bat egiteak, bereziki kirol klub batean, aukera ematen diola nazionalitatea duen estatua ez beste estatu kide batean bizi den Batasuneko herritarrari loturak sortzeko joan den eta bizi den Estatuarekin edo lotura horiek sendotzeko. Kontsiderazio horrek **balio du, halaber, edozein mailako kirol lehiaketetan parte hartzeari dagokionez.*****
- ***Batasuneko herritar batek, Biffi jauna bezala, zilegi du EBFiren 18. eta 21. artikuluetan xedaturikoa eskatzea, harrera egin dion estatu***



Bidasoa - Txingudi

kideko gizartean egiten diren lehiaketetan afizionatuen kategoriako kirol bat egiteko.

- **Jurisprudentzia errepikatuaren arabera, EBF itunak aurreikusitako oinarrizko askatasunen errespetua eta nazionalitate arrazoiengatiko diskriminazioaren debekua izaera ez publikoko arauetara ere hedatzen dira, eta horien helburua da inoren konturako lana eta zerbitzu prestazioak kolektiboki arautzea.**
- **Justizia Auzitegiak adierazi du EBko estatuen artean pertsonen joan-etorri askerako eta zerbitzuak askatasunez emateko oztopoak ezabatzea Europako Erkidegoaren funtsezko helburua dela, EBko Itunaren 3. artikuluko c) letran jasota dagoena (Lisboako Itunak indargabetua), eta batez ere EBFlren 3. artikulutik EBFlren 6. artikulura artekoek aldatua; eta hori arriskuan jarriko litzatekeela, Estatutik etorritako oztopoak kentzea neutralizatu ahal izango balitz Zuzenbide Publikotik kanpo dauden elkarteek eta erakundeek autonomia juridikoa erabiliz egindako ekintzen ondoriozko oztopoekin.**

Argudio horretan oinarrituta, ondorioztatzen du “40. Horrenbestez, kirol federazio nazional baten arauak, hala nola auzi nagusian eztabaidatutakoak, Batasuneko herritarrak kirol lehiaketetan parte hartzea arautzen dutenak, Itunaren arabei lotuta daude, eta, bereziki, EBFlren 18. eta 21. artikuluei.

EBFlk berariaz aitortzen du Kirol Federazio Nazionalen arabei eta araudiari aplikatzen zaizkiela Batasunaren Itunen arauak, bereziki Zirkulazio Askatasunaren, Egoitzaren eta Ezarpenaren arauak, printzipioak eta eskubideak, eta Nazionalitatea dela-eta Diskriminazioa Debekatzeko arauak. EBFlren 18., 21. eta 49. artikuluek).

3.- MUGAKO ETA MUGAZ GAINDIKO ERREALITATEA.

Federazio Araudiak oztopo dira kirolaren bidez Europa integratzeko prozesurako, eta Europar Batasuneko zuzenbidea gainditu nahi izan du oztopo horrek. Horrenbestez, Erkidegoko Zuzenbidea eta sistema edo antolamendu juridiko ororen Kongruentzia Printzipioa urratzeaz gain, Europar Batasuneko instantziek eta estatu kideek bultzatutako



Bidasoa - Txingudi

erkidegoaren kohesioa eta integrazio prozesua desitxuratzen dituen elementua da, eta horren egiazko testak dira mugaz gaindiko eremuak.

Bidasoa-Txingudi eskualdeko mugaz gaindiko errealitate soziala eta instituzionala.

Hainbat kirol modalitatetako talde irundar eta hondarribiarretako kide diren kirolari asko Hendaian bizi dira, baina alderantziz ere gertatzen da, klub horietan parte hartzen duten batzuk hendaiarrak dira, hiru hirietako komunitateko kide izateko joera naturalizatua sortuz. Beraz, Europar Batasunean oztopoak gainditzen direla erakusten duen fenomeno eredugarria da hori, modu naturalean egina eta herritarren berezko beharrek bultzatua. Fenomeno hori, Europar Batasuneko instantziek eta Itunek bultzatuta, Europako integrazioa deitutakoaren abangoardian dago, inolaz ere.

“Txingudi hiria Eskualdeko” soziologia horren tresna instituzional gisa, 1998an “Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa” eratu zen, Hendaia, Hondarribia eta Irun udalerrien artean Mugaz Gaindiko Lankidetzarako Administrazio arteko Hitzarmena sinatuta. Hitzarmen hori Bidasoa ibaiaren bokalean sinatu zen, 1998ko abenduaren 23an.

Mugaz gaindiko lankidetzaren esperientziak kirol amateurren arloan.

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa mugaz gaindiko lankidetzaren esperientzia instituzionala bat da amateurren kirolaren arloan.

Gipuzkoa, Nafarroa, Aragoi eta Pirinio Atlantikoen arteko Mugaz Gaindiko Lankidetzaren Hitzarmena, Zaragozan, 2017ko urtarrilaren 31n sinatua, “kirolaren bidez gizartearen eraldatzeko konpromisoa da, mugak hautsiz, estereotipoak gaindituz, eta jarduera fisikoa eta kirola sustatuz guztion ongizaterako”.

4.- ONDORIOAK

Lehenengoa.- Kirol eremua, eta horren barruan, federazioetatik etorritako federazio araudiak eta federazio lizentziak, federazio lehiaketetan parte hartu ahal izateko titulu juridiko administratibo gisa ematen direnak, erregelamendu izaerako arauak, edo administrazio egintzak dira,



Bidasoa - Txingudi

ordenamendu juridikoaren mende eta Espainiako Konstituzioaren 9. artikuluan jasotako arau hierarkiaren mende daudenak.

Federazio Araudiek erregelamendu izaera izateak eta Federazio Lizenziak Administrazio Egintza izaera izateak berekin dakar nazioarteko legeen eta itunen, Europar Batasuneko Itunen (EBI, EBFI, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna) eta Europar Batasuneko Zuzenbidearen mende egotea, kirolaren esparruan eragina duten alderdiak arautzen edo ukitzen dituzten edukietan. Ez dago, beraz, "kirol salbuespenik" edo "kirol autismorik" ezartzeko edo onartzeko aukerarik.

Bigarrena.- Europar Batasuneko Itunak eta Erkidegoko Kidego Juridiko osoa, bai eta Europar Batasuneko erakundeetatik etorritako nahitaez bete beharreko xedapenak eta ebazpenak ere, bereziki Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako ebazpen judizialak, zuzenean aplikatu daitezke eta nahitaez bete behar dira kirol arloan, eta Europar Batasuneko herritarrek erreklamatu ditzakete, bai dagozkien kirol federazioen aurrean, bai eskumena duten epaitegien eta auzitegien aurrean.

Hirugarrena.- Europar Batasuneko herritarrek kirol lehiaketetan parte hartzea arautzen duten kirol federazio nazional baten arauak, federazio araudiak izan nahiz federazio lizenziak izan, Europar Batasunaren Itunen arauak bete behar dituzte, eta, bereziki, EBFIren 18., 21. eta 49. artikulua, itun beraren 165. artikuluan xedatutakoari dagokionez; izan ere, kirol afizionatua eta, zehazki, kirolari afizionatuak Batasunaren itunean ezarritako eskubideen titular dira, bereziki, nazionalitatea dela-eta diskriminaziorik ez egiteko printzipioa eta zirkulazio libreko eskubidea Batasuneko herritar guztientzat.

Laugarrena.- Batasuneko Estatuetan eskaintzen diren jolas jardueretan parte hartzea zirkulazio askatasunaren ondorioa da Batasuneko herritarrentzako, eta, nahiz eta onartu kirol federazioek autonomia dutela beren federazio arauak eta erregelamenduak onartzeko antolatzen dituzten lehiaketak arautu ditzaten, arau eta erregelamendu horiek, eta horien aplikazioa, lizenzien, baimenen eta gainerako egintza eratorrien bidez, Batasunaren Itunetako Printzipio, Eskubide eta Zehaztapenen mende daude.

Bosgarrena.- Mugaldeko eremuen kasuan, egiazko truke esperientzietan islatutako errealitate sozialak, harreman naturalizatua eta kohesio soziala



Bidasoa - Txingudi

afizionatuen kirolaren esparruan, Batasunaren Itunek Batasuneko Herritartasunerako ezarritako printzipioen eta eskubideen isla dira, inolaz ere.

Federazio Araudiak kirolaren bidez Europa integratzeko prozesurako oztopo izateak, Europar Batasuneko zuzenbidea gainditu nahi izan duen oztopo horrek, Erkidegoko Zuzenbidea eta sistema edo antolamendu juridiko ororen Kongruentzia Printzipioa urratzea dakar.

Seigarrena.- Kirol federazioek eta erakunde eskudunek kontzientzia hartu behar dute erkidego esparruaz, Europaren integrazio prozesuaz, Europako Herritartasunaren eraketaz eta onarpenaz eta Batasuneko herritarrei dagozkien eskubideez, eta, horretan oinarrituta, behar diren aldaketak egin behar dituzte federazio araudietan, kirol kidego juridiko egokia eraikitzeko, Europar Batasuneko herritarrei onartutako ordenamendu juridikoarekin eta eskubideekin eta askatasunekin bat datorrena eta horiek guztiak errespetatzen dituen.
